



**2008KO URTARRILAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita hiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Aktan adieraziko da Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko abenduaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, EHUN ETA BERROGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (142.927,16 €, -)takoa eta 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, SEIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI (638 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

Une honetan, iluntzeko zazpi terdiak direnean, Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratuta da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 4 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea, 2007ko abenduaren 17tik, egoitzan sartu delako.
- 8 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea, 2007ko abenduaren 11tik, egoitzan sartu delako.
- 752 zbk.dun esped.: Etxeko laguntza zerbitzua gehitzea, astean bi ordutik hiru ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 da.

...///...

...///...

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 858 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5 €ko dirulaguntza ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 755 zbk.dun esped.: Dirusarrerren aldaketagatik, etxebizitzaren mantenimenduko eta alokairurako gastuak ordaintzeko dirulaguntza aldatzea, urtarriletik abendura, honako kopuru hauek emanez: alokairurako 290,00 € hilean; mantenimendurako 86,93 € hilean. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 707 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairuko gastuak ordaintzeko laguntzetatik baja ematea, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Mintzalaguna proiektua.-

Mintzalaguna proiektuari dirulaguntza emateko Kultura Batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Mintzalaguna Proiektuaren irailtik abendura bitarteko jardunarengatik, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari sei mila hiruehun eta hirurogeita hamahiru euro eta zazpi zentimo (6.373,07 €)tako dirulaguntza ematea erbakitzen du.

Urruña-Ziburu Ikastolaren alde.-

Urruña-Ziburu ikastolaren alde Ordiziako Majori kiroldegian 2007ko abenduaren 30ean egindako jaialdia laguntzeko Kultura batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hiruehun eta hirurogeita hamar euro (370 €)tako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

